



0001 ZBK.

# ZALLAREN ALDE

## LAN EGITEN JARRAITZEN DUGU

**Aurreko udal hauteskundeetan "Zalla Bai"- k irabazi zuen, beraz eurei dagokie hurrengo lau urteetan Udala gestionatzea. EAJ- PNV ren zinegotziek oposizioa egingo dute orain arte erakutsi duten gogo eta ahalegin berberaz Zallaren alde. Haiak prest daude daukazu edozein zalantza, proposamen eta kexa entzun eta bideratzeko. Aldi berean konpromisoa hartzen dute Udalaren gaiei buruz informatzeko. Jakina, badakizu Batzokian gaituzula behar duzunarako edo hurrengo helbideen bidez kontaktuan jarri ahal zarela.**

• EAJ- PNV- ko tokia Udalan (bigarren solairua).  
zallakoeajpnv@gmail.com  
Telefono mugikorra: 644254665



## ZALLAKO HERRIARI

Partido Nacionalista Vasco- Eusko Alderdi Jeltzalea-ren udaleko erakundeak, Zallako auzokidei eskerrak eman nahi dizkie azaroko 20-an egon ziren hauteskunde orokorren botoegatik.

### Eskerrik Asko



## POLIKIROLDEGIA-REN PREZIOAK



**"Instalazioen hobekuntza, zerbitzuak, polikiroldegiaren eta beste hornikuntzen ordutegiak eta prezioak" hori dio Zalla Bai- ko hauteskunde programa, baina egiazkotasan zehatza beste bat da.**

**Udalak polikiroldegiaren instalazioen alokairua % 50- a murriztea erabaki du, horrela herritar kolektibo txiki batek etekina aterako du baina ez gure herriko multzoak. Hala ere, % 3- ko igoera ikastaroetan eta urteko txartelan ezarri da, edozein familien kontuak igoko dira, bonoagatik gehiago ordainduko dutelako eta igeriketa ikastaroengatik, adibidez.**

**Aldaketaren dokumentuak gaurko ekonomi egoera zailari aipamena egiten dio, narriadura sozio- ekonomikoa eragin du eta gure herriko familien erosteko ahalmena murriztu du.**

**Gure udala Euskadi eta estatu mailan ekonomikoki hobereana aurkitzen dena da, EAJ- PNVk urriko 5- ko Udalbatzan ordonantz fiskalak eta prezio publikoak 2012 urtean gehikuntzarik gabe mantentzea proposatu zuen. Horrela denok onuradunak aterako gara.**

## I.A.T, AMETS BAT APURTURIK?

Zallako Udalak 2007- an Eusko Jaurlaritzarekin gestioak hasten ditu I.A.T bat Zallan jartzeko. Eusko Jaurlaritzak onarpena ematen du eta El Longar poligonoan lurrak lortzen ditu. Eusko Jaurlaritzaren aldaketa prozesua mozteldu arren, Zallako Udalak EAJ- PNV- ko gobernua zuela Eusko Jaurlaritza sozialistarekin konpromisoa hartzen du, 2011an I.A.T Zallan instalatzeko.



*Maiatzan, Zalla Bai-k bere hauteskunde programan testualki esaten du: "I.A.T Bolumburu- El Longar eremu natural eta historikoaren inguruz kanpoaren instalazioa, beste zona industrial batean jarriz, autobiarako irteera zuzenarekin". Arazoa da ez dela zona hori existitzen.*


Gaur egun ez da ezer ezagutzen Zallako I.A.T- ri buruz, horregatik Udalaren osoko bilkuran EAJ- PNV- k proiektu honen gaur egungo egoeraren informazioa eskatzen du eta Alkateak, Javier Portillok, erantzuten du testualki: "Eusko Jaurlaritzaren industria departamenduarekin kontaktuan jartzea saiatu dira, I.A.T bideragarritasuna ezagutzeko arduradun batzuekin hitz egin dute. Abuztuaren amaieran prentsan argitaratu zen, gaur egungo koiuntura ekonomikoaren ondorioz, Zallan I.A.T eraikuntza suspenditzen zela aldi- baterako". Udalako osoko bilkura horretan EAJ- PNV-k iritzia ematen du esanez seguraski Eusko Jaurlaritza konpromisuaren geldiera Zalla Bai bere hauteskunde programan I.A.T-ren kokapenaren aldaketari buruz adierazitakoaren ondorio dela, Eusko Jaurlaritzak lur horiek horretarako 2007-an erosi zituelako.

Gainera, gaur egun Zallan ez da existitzen poligono edo industrial lursailik "Kadagua corredor"- rantz irteera zuzena duenik. Ulergarria da Eusko Jaurlaritzak lur horiek Longarrean lortu izana I.A.T bat jartzeko kokapen aproposena iruditu zitzaiole eta gaur egungo Udalak, bere promesan harrapatuta, egoera hori ez duenez ondo gestionatzen, Zalla I.A.T barik geratuko da. Eta ... "zorte" herrialde batzuentzat "arrantza" egitera aterala lur dohainik eskainiz I.A.T-ren kokapenerako. EAJ- PNV-k lan egiten jarraituko du I.A.T edo edozein azpiegitura aurrerakuntza eta ongizate izateko Zalla eta bere auzokideentzako, gure herrian ezartzeko.

### FALTAN NABARITZEN DUGU...

**Zallako Udalaren arduradun nagusiak ez duela ezer esan burruka armatuaren amaieraren erlazioari buruz. Bakea balio eta helburu unibertuala da lerro politikoa alde batera utzita. EAJ- PNV- k bere poza manifestatu zuen eta Euskal Herriari zorianak eman zion lortzeagatik. Orain denbora da ASKATASUNA TA EUSKADI-RAKOO!!! ORAIN ASKATASUNARAKO DENBORA DA GORA EUSKADI ASKATUTA!!!**

**Hezkuntza Zinegotzia (OMR) Mimetiz Institutuko Ordezkaritza Goreneko Organoa lehenengo batzarrean. Urriaren 27an Mimetiz Institutuko OMRko batzarra burutu zen. Bilera horretara ez zen joan Udaletzeko arduradunik ezta bere ordezkari ere. Beste parte hartzaileei horien faltaren azalpenik ez zitzaien eman. Mimetiz Institutuak osatzen duten GUZTION ahalegina behar du.**



### Zuk egiten duzu EUSKADI...



**GERNIKAKO EKITALDIA** Urriko 25-an, gaur egungo Eusko Jaurlaritzak ezarritako jaialdia 30 urte garatzeko iraun duen estatutoa ospatzeko, Iñigo Urkulluk Euskadirentzako garai berri baten hasiera eta bukaera ezarri zuen, Euskadirako estatutoa berriaren garapena 2015 urtean helmuga jarrita. Ekitaldi horretara Zallako EAJ- PNV-ko Uri Buru batzarra eta zinegotzi batzuk joan ziren, eta solasaldi bat konpartitu zuten EBB-ko partaide ezberdinekin eta orain dela gutxi izan ziren hauteskunde estatu parlamentu buruarekin, Josu Erkorekarekin. Andoni Ortuzarrek BBB-ko Lehendakariak, agurtu zituen segitalde partaide bakoitzari eta posatu zuen argazkirako bere ohiko begitasunarekin.